

bagerala • bagerala • bagerala • bagerala

• Badirudi Donostian Korrikak nahikoa erraz saldu zituela kilometroak. Metroak esan beharko genuke, auzo batzuetan kilometro osoa eskaintzerik ez bazuten izan. Zorionak, beraz, kilometroak erosten parte hartu duten donostiar guztiei Korrikaren izenean!



Euskararen aldekoak eta kontrakoak



• Groseko auzotar batek jakinarazi digunez, «*Crónicas de un barrio. Gros (1)*» aldizkaria jaso du eta ekimena interesgarria bada ere, euskaraz irakurri daitekeena «*Zorionak grostarrak eta Grosen xakea, Groseko Xake Taldea*» hitzetara mugatzen da. Aldizkaria bultzatu dutenek auzoko egoera lingustikoa ez dute ezertarako kon-tuan hartu.

Euskararen alde egiten dena txalotu eta euskararen kontra egiten dena aipatzeko aukera duzu 43 12 28 ifonoan.

Altzako mintzataldea



Ostegunetan biltzen dira Herri Berriko egoitzan, arratsaldeko zazpiretan.

altzan euskaraz hitzegiteko talde berri bat sortu da. Beraien berri izateko Koldo Katxorengana jo dugu.

«1994ko urriaren 13an hasi ginen biltzen. Gure inguruan euskaraz hitzegiten trebatzeko toki bat behar zela entzuten zen. Betiko harremanak eta giroak gaztelerara bultzatzen gaitu gure Altza erdaldun honetan eta horregatik «espazio» berezi bat eskatzen zen. Hasieran bospasei lagun

elkartzen ginen. Hemendik aurrera taldea handitu denez, agian bitan banatu beharra edukiko dugu elkarren arteko komunikazioa bermatzeko».


Bildu ohi direnen adina 20 urtetik 30 urte bitartekoa da, eta gehienak ikasleak dira. Buruan daukaten ideia «gure euskara lantzea eta euskal kultura hobeto ezagutzea da». Honetarako noizbehinka elkar-bizialdiak egingo dituzte leku euskaldunetan, euskal ohiturak eza-

gutzeko irteerak antolatuko dira, auzoko ekintza batzutan esku hartuko dute, urtebetetzeak ospatzeko festatxoak, eta sortu daitezkeen beste ekintzak. Batzutan Irutxulotik idazki errazen bat hartu eta eztabaida gai ere erabiltzen omen dute. Eta partaide batzuk Bagerako bazki-deak direnez, «*elkartek antolatu ohi dituen ekintzen berri ere ematen dugu*» esan digute.

Gonbitea luzatu nahi diete «*bai euskaldun berriei, baita euskaldun zaharrei ere, euskara maite baduzu eta zure auzoan euskaraz bizitzeko leku bat eduki nahi baduzu, utzi lotsak alde batera, eta zatoz Altzako Mintzataldera, Herri Berriko egoitzan ostegunetan 7etatik 9etara*».

Piroparia II

Bigarren urtez, BAGERA Donostiako Euskaltzaleen Elkarte-ko Institutuetako Gazte Taldeak, euskarazko piropoen bilduma osatzeko deialdia egin du hainbat institutuetan.



1994. urtean 327 gaztek hartu zuten parte eta guztien artean 525 piropo bildu ziren.

Aurten, pasa den urteko kopurura iristea helburu izateaz gain, ikasleen artean, euskaraz piropoen munduan kabida baduela erakutsi nahi dute gazteek.

Jasotako piropo guztien artean, sailkapen bat egin ondoren, bost sari banatuko dituzte apirilaren 1ean egingo duten afarian.

Zuk ere piropo politik ezagutzen baduzu, bidaliezazkiguzo helbide honetara: BAGERA Elkarte (Gazte Saila) Piropoen Bilduma - San Juan 14-20003 Donostia.

Bertan zure izen-abizenak eta telefonoa adierazi.